



LASAGABASTER, Jesús María
Las literaturas de los vascos

Donostia: Universidad de Deusto, 2002. – 659 or. ; 22 cm. – ISBN: 84-7485-807-0

Literatur Kritikazko liburu gutxi izango dira gurean J.M. Lasagabaster irakasle eta kritikariaren artikulu ezagunenak biltzen dituen hau baino beharrezkoagoak. Eta beharrezkoa diot, liburuaren edizio lanetan aritu den Ana Toledo Lezetak dioen bezala, liburu honetan biltzen direlako han eta hemen barreiatuta egon diren egilearen ikerketa lan bikainak. Merezitako omenaldia, beraz, hogeita hamar urtez Deustuko Unibertsitatearen Donostiako egoitzan irakasle aritu ondoren, J.M. Lasagabasterrek liburu honekin jaso duena.

Hori esan ondoren, azpimarra dezagun Euskal Literaturaren ikerketa akademikoan inor aitzindari eta berritzaile izan bada Lasagabaster jauna izan dela. Lerro hauek idazten dituen ere bere ikasle izandakoa da, bere ikasbideetatik edandakoa, eta *Las literaturas de los vascos* liburu honetan ikasleoi (eta Lourdes emazteari, nola ez) egiten zaigun eskaintza eskerronez estimatzen duena. Edonola ere, subjektibotasunak alde batera utziz, esan dezagun Lasgabaster gurean *nor* bada euskal literaturaren ikerketari eta azterketari egin zizkion ekarpen teoriko eta metodologikoagatik dela. Liburu honetan biltzen diren artikuluak irakurri besterik ez dago etengabe azpimarratzen diren hitzak “zehaztasuna” (gazt.: “rigor”) edo “analisi” direla konturatzeko. Finean, R. Barthesen hitzak parafraseatuz esaten den bezala, kritika lanak egiaztatgarriak baino gehiago onargarriak izaten baitira, hau da, ados egon ala ez, irakurketa arrazoituak eskaintzen dituzten iruzkinak. Horixe da, hain justu, irakurleak liburu honetan aurkituko duena, inpresionismo eta intuizio hutsak baztertu eta azterlana oinarri duten kritika multzoa.

Editoreak hitzaurrean dioskunez, molde eta helburu desberdinetako artikuluak aurki ditzakegu liburu honetan. Batetik, euskal literatura aztergai dutenak, dela ikuspegi orokorra eskaintzen digutenak (“La Literatura Vasca entre 1700 y 1876”, “Euskal nobelaren gizarte-kondairaren oinarriak”, “Introducción a la narrativa vasca actual” edo “Literatura y vida literaria”...), dela euskal literaturako egile zehatzei buruzkoak (Saizarbitoriaren lanari buruzkoak, Atxagaren obra aztergai dutenak...), edo euskal kritika nahiz historiografiaren egoera hizpide dutenak (“La historiografía literaria vasca. Aproximación crítico-bibliográfica” ezaguna, kasu). Hauen guztien ondoren, gaztelaniaz idatzi duten idazleen obra aztertzen duten ikerlanak datoz: Pío Baroja, Gabriel Celaya edo Ignacio Aldecoaren lanei buruzkoak. Beste atal batek euskal bizitza literarioan Peñafloidako Kondeak izandako garrantzia aztertzen du. Artikuluon guztien osagarri, J. M. Lasagabasterren bibliografia eskaintzen da, liburu honetan jasotakoez gain, literatur teoria, kritika edo historia abiapuntu duten bere ikerlanak zerrendatuz.

Edonola ere, bada hastapenetatik azpimarratzea merezi duen alderdi bat, liburuaren izenburuari, *paratestuari* esango luke Lasagabasterrek, dagokiona hain zuen. *Las*


literaturas de los vascos izenburuak interpretazio erromantiko oro baztertu eta euskal literaturaz hitz egiteko “literatura nazional” bezalako abiapuntuak saihestu behar ditugula azpimarratu nahi du. Kontu honek badu, literaturaren ikuspuntu konparatzaileari dagokionez behintzat, bere garrantzirik, dakigunez, XVIII. mendetik gailendu den literatura kontzeptua nazioen mugak gainditu eta *unibertsala/partikularra* arteko tentsioaren arabera definitzen baita (ik. T.S. Eliot-en “Tradition and Individual Talent” (1920)). Hori onartuz, egokiagoa da hizkuntza desberdinetan egiten diren literaturez hitz egitea, egileen jatorri, nazionalitate edo beste irizpideak kontuan hartuz egitea baino. Lasagabasterrek berak azpimarratzen duen modura (24), hizkuntza desberdinetan egiten den euskal herritarren literaturez mintzo garenean, literatur sistema desberdinez mintzo baikara eta sistema horiek kultura eta gizarte sistema zabalagoen barruan izan dituzten harreman sinkroniko eta diakronikoez. Arrazonamendu honen osagarri, eta liburuaren izenburuaren justifikazioa borobiltzeko, Koldo Mitxelenaen hitzak gogoratzen ditu Lasagabasterrek eta gaztelania ere geurea dela azpimarratzen. Bere ondorioak argi utzi nahi ditu: “De hecho, los vascos han hecho literatura desde siempre (...), en las diferentes lenguas que se han hablado en Euskalerría. Y yo pienso que en definitiva no es el escritor el que elige la lengua, sino que es ésta la que de alguna manera escoge al escritor.” (25). Zehaztapen interesgarria deritzogu gurean oraindik nahasten diren hainbat kontzeptu argitze aldera.

René Wellek-ek literaturaren ikerketa zientifikoa berezitako hiru arloetatik (Literatur Kritika, Literaturaren Teoria eta Literaturaren Historia), *Las literaturas de los vascos* liburuan jasotzen diren artikulua bereziki Kritika eta Historiaren arloei dagozkiela argitu beharko genuke. Kritikari dagokionez, aipagarria da Lasagabasterrek bere ibilbidean erabili eta uztartu duen paradigma metodologiko aniztasuna. 1965ean Parisera joan zenean “École Pratique des Hautes Études” delakoan landu zuen *Nouvele Critique*-ren ildotik hasita, 60ko hamarkadatik aurrera ezagunagoak izan diren Literaturaren Soziologia, Harrera Estetika edo M. Bakhtinen teoriarekin jarraituz, irakurleak ekarpen kritiko guztion adibideak kausituko ditu liburuan. Literaturaren historiari dagokionez, berriz, zinez dira azpimarragarriak Lasagabasterrek bere artikuluetan egindako ekarpenak. “La historiografía literaria vasca. Aproximación crítico-bibliográfica” artikuluan, esaterako, euskal literaturari buruzko historia klasikoek egile eta obren zerrenda hutsak aurkezten zituztela salatu nahi izan zuen, ez zituztela autore-obrek garaiko bizitza literarioarekin izandako harreman motak aztertzen. Bat egiten dugu “Literatura y vida literaria” artikuluan egiten duen aldarriarekin: “(...) la literatura no puede ser entendida como la mera existencia objetiva de los textos, sino como la institucionalización de las relaciones autores-obras-lectores en la sociedad” (124). Horregatik dira oraindik onargarriak Lasagabasterrek bere ikerlan historiografikoetan proposatutako zenbait ondorio, hala nola, euskal nobelaren jatorri eta bilakaerari buruzkoak (“Euskal nobelaren gizarte...”), edo euskal literatura jarduera autonomo gisara 50eko hamarkadan instituzionalizatu zela dioten argudioak (“Literatura y Vida Literaria”). Hurbilpen diakroniko horietan kritikariak erabilitako irizpide hertsiki literarioek euskal literaturaren ikerketa klasikoetan onartu eta defendatutako hainbat baieztapen suntsitu zituzten: “Prácticamente hasta el siglo XX la historia de la literatura vasca no es sino la historia de lo escrito en euskera. Y lo que de hecho se escribe en euskara, no es, con alguna que otra excepción, literatura en el sentido moderno del término, sino libros de piedad o tratados lingüísticos” (298).

Esandako guztiaren osagarri, gaztelaniaz idatzi duten idazleen lanei buruz erakusten duen ezagutza oparoa azpimarratu nahiko genuke. Baina hori bakarrik ez, egile hauek euskarazko literaturan egin zezaketen ekarpenei buruzko iritziak, hala nola, Bajoraren errealismoari buruz esandakoak (“Barojaren nobelagintza eta euskal nobelaren etorkizuna”), eztabaida interesgarri eta batzuetan sutsuak eragin zituen gurean 80ko hamarkadan. Alabaina, ezer azpimarratu beharko banu Baroja, Celaya edo Ignacio Alde-

koaren obrei buruzko azterketa gaurkotu eta trinko hauetan, kritikariari noizean behin ezkuta ezina egiten zaion miresmena, irakurle pasioa izango litzateke. “Pío Baroja, Mari Belcha y yo” artikulua irakurtzen duen edonor konturatuko da lerro horien atzean gaitasun eta formazio literario bikaina duen kritikaria ezkututzen dela, baina baita literatura-ren sedukzio gaitasunari muzin egiten ez diona ere. T.S. Eliotek esan bezala, kritikari on batek, lehenengo eta behin, irakurle ona izan behar baitu. Horixe da, hain justu, *Las literaturas de los vascos* liburuan eskura daukaguna: irakurle on baten azterketa eta hausnarketa arrazoituak. Beste hitzetan esateko, Literatur Kritikak.

Mari Jose Olaziregi



MARTÍN DUQUE, Ángel J.

Pirenaica. Miscelánea

[Ed. preparada por F. Miranda García]. – En: *Revista Príncipe de Viana*, XLIII, 227, Pamplona: Gobierno de Navarra, 2002. – 1.090 p.

Con pie de imprenta todavía de 2002, pero presentado en abril de 2003, el tomo aquí aludido reúne una selección de trabajos del profesor D. Ángel Martín Duque, catedrático de Historia Medieval, cuidadosamente seleccionados por F. Miranda García, uno de sus discípulos y actualmente profesor de Historia Medieval en la Universidad Autónoma de Madrid. El libro, número monográfico de la Revista “Príncipe de Viana”, fue concebido por la institución homónima del Gobierno de Navarra, como un homenaje a quien ha sido, y sigue siendo, investigador incansable de la Historia y ha dedicado prácticamente toda su vida profesional a interrogar, cuestionar, analizar, explicar, todos los aspectos políticos, sociales, económicos e institucionales de este pequeño segmento del Pirineo occidental y valle del Ebro, sin perder nunca sus imprescindibles horizontes y encuadramientos culturales, religiosos, socioeconómicos, políticos. Entre las dos posibles fórmulas habituales en los homenajes académicos –o la simbiosis de ambas–, en esta ocasión –y quizá porque estrictamente no es tal– se ha preferido dejar que “hable” el maestro, reuniendo sus trabajos dispersos desde al menos el año 1955 hasta un recientísimo trabajo del año 2002.

La tarea en sí misma no era, por otra parte, sencilla, porque el profesor Martín Duque, del que aquí se seleccionan 31 estudios, no ha sido especialmente prolífico en sus escritos y además no ha tenido inconveniente en publicarlos en lugares bien dispares; maestro de historiadores y cabeza de diversos equipos de investigación, las tareas a las que más tiempo ha dedicado siempre han sido seguramente las de enseñar a trabajar, y las de trabajar con sus alumnos, pero no tanto la de escribir. Quienes hemos trabajado con él y seguimos contando con su referencia, sabemos que el mérito de no pocos de los buenos trabajos de sus alumnos se debe a la intensa dedicación oficialmente anónima del maestro, cuyas líneas directrices, sugerencias, discusiones y aportaciones saltan elocuentes luego desde las páginas de los discípulos. Es realmente en